

# Añarbeko basoa, Oarsoaldeko biodibertsitatearen hornitzailea

**Tomas Aierbe**

**2**010. urtean Biodibertsitatearen Nazioarteko Eguna ospatzen ari gara mundu mailan. Euskal Herrian ere bai. Bestalde, gure herrian, eguneroko zurrunbilatik alde egin nahi dugunean goi aldeetara jo izan dugu askotan, Aldura, Malbazar eta Urdaburu gainetara esaterako. Horietara iritsi eta ipar alderako begirada batean Donostiako Kontxa, Pasaia badi, Jaizkibel mendia eta denen atzean itsaso zabala hartzen ditugu, Kantauriko izurde eta bale populazioen bizilekua. Hegoalderantzko sakanean berriz, Mendaur, Mandoegi eta Añarbeko basoa azaltzen zaizkigu alderik alde. Berehala konturatzen gara azken mendi honek Añarbe urtegian pilatzen diren iturburu ugari dituela eta erreka askok zeharkatuta dagoela. Baso honetako zuhaitz hostozabalak ikusita (pagoak eta haritzak, batik bat), era naturalean bilakatutako basoa dirudi. Baina ez da horrela, baso hori gizakiak historian zehar bere beharren arabera moldatu baitu. Aro historiko desberdinetan, basoaren baliabideak beharren arabera ustiatu dira eta horrek baldintzatu du nagusiki egun agertzen duen egitura.

## **Añarbe eta biodibertsitatea**

Herri-lurretan egonda, Añarbeko basoak baditu hainbat betebeharrak: edateko uraren kalitatea ziurtatzea, higadura saihestea, paisaia naturalak eta basatiak mantentzea, etab. Azken urte hauetan betebeharrak hauei beste bat gehitu zaie, biodibertsitatearen iraupena bermatzearena, basabizitzaren barietatearena, hain zuzen ere. Gizartearen gehiengo batek onartzen du, gure ustez, denok ondare naturala, biodibertsitatea eta horren baitan dagoen dibertsitate genetikoak barne, kontserbatzeko badugula konpromisoa. Denari eustea ezinezkoa da, baina zatirik handiena babesten saia gaitzen.

Eta zer egin? Lehenik eta behin logikak esaten duena, espezie eta populazio anitzak hedatu nahi badira, giro edo nitxo ekologikoen

eskaintza ugaria izan behar duela. Hau da, egituren konplexutasunak (basoa, errekek) handitzera joan behar duela. Ildo honetatik badira buruturiko proiektu esperimental batzuk.

## **Basabizitzarako “etxeak” prestatzen**

Proiektu horietako batek erreka eta erreka-toetara egurra botaz konplexutasuna handitzea proposatzen du. Egurra gehituta presak hedatzen dira eta erreketako dinamikan nahiz egituren izugarritzko eta berehalako eragina du. Putzuak sortzen dira, sedimentuak metatzen dira, txokoak eratzen dira, nolabait esateko, nitxo ekologikoen eskaintza zabaltzeko eta biodibertsitatea handitzeko giro desberdinak sortzen dira, espezie desberdinen beharrak asetzen dituztenak.

Basoan ere egin da saiakeraren bat arlo honetan. Kasu honetan, egituren konplexutasuna handitzeko modua argiari bidea egitea da. Dakigunez, landareek argia behar dute hazteko



Ciervo volante



Plecotus

eta honek eragin zuzena du baso egitura desberdinetan. Zuelkatzu barreneko pagadian ibili (dena garbi-garbia) edo Burkondo barreneko hariztian ibili (gerrirainoko txilar artean ibili beharra dago), alde nabarmena dago. Izan ere, dakigun moduan, zenbait zuhaitzek, pagoak besteak beste, lurzorura oso argi gutxi pasatzen uzten dute eta azpian ezer gutxi etortzen da. Bestalde, haritzak bai uzten duela argia pasatzen eta ondorioz azpian landaredi ugaria sortzen da, hau da, tarteko egitura bat sortzen da zuhaitz nagusi eta lurzoruen artean. Tarteko egitura honek giro desberdinen eskaintza handitu egiten du eta, ondorioz, biodibertsitatea ere bai.

Izan ere, Añarben beren habitatak dituzten basakatuak, orkatzak, katajinetak, muxarrak, katagorriak, arrabioak, okilak edo zapelatzak, adibidez, guzti hauentzat "etxeak" berreraiki behar dira.



### Egur hilaren garrantzia Añarben

Baina badira basoan konplexutasuna handitzeko beste moduak ere. Adibidez, aipatutako proiektuak egur hilaren garrantziaz ohartarazten gaitu. Usteltzen ari den egurrean ornogabe, liken, goroldio eta onddo espezie ugari garatzen dira eta taxoi horiek dira, hain zuzen ere, biodibertsitatea gehien hornitzen dutenak, bide batez, ornodunen bizitza ahalbidetuz. Proiektu honek basoetan era naturalean izaten diren haizete, ekaitza, etab. imitatuko lituzketen ekintzak gauzatzea proposatzen du, zuhaitz batzuk botata eta egurra bertan utzita edo beste batzuk zutik propio lehortuta.

Honekin bi helburu betetzen dira. Alde batetik tartekak zabaltzen dira eta argiari lurzorurako bidea libratzen zaio, azpian tarteko egitura sortuko duen landaredia gara dadin. Bestetik, berriz, botatako eta lehortutako arbolekin sortzen den egur hilak hainbat eta hainbat ornogabe, liken, onddo eta goroldio espezieri garatzeko aukera ematen die.

Badira biodibertsitatearen handitze honi lagun diezaioketen beste arlo batzuk. Esate baterako abeltzaintza, ehiza, arrantza eta erabilera publikoaren arautze egokiak, besteak beste, lagun-garriak izango dira lehen aipatu dugun helmuga horretara iristeko.



### Añarbe Baso-Erreserba izango da laster

Erreterriako Udala, Añarbeko harizti eta pagadien jabea izanik, Erreserba-Eremua izendatzeko bidean ari da, laster Aiako Harriko Parke Naturalaren Erreserba handiena bihurtuko delarik (917 hektarea), Endara, Txurumuru-Txikia eta Enbidoko ur-jauziarekin batera.

Bada beraz, Añarbe basoan hurrengo urteetarako erronka erakargarri bat: biodibertsitatea handitzea. Neurrietako bat izango da dauden pinudi eta egur-ustiapen komertzial guztiak kentzea. Bestea, bertako basoak zabaltzea eta naturalagoak bilakatzea. Azken jomuga hori hartuta, horretarako egin nahi den baso-kudeaketan dago gakoa, zer egin? Beharbada aukera bat izan daiteke basogintzan ezer ez egitea, basoari bere bilakaera naturala jorratzen utziz. Haizeak eta ekaitzak botako dituzte arbolak eta sortuko dira argiguneak tarteko landaredi hori garatzeko.

Igartzen da, ustiaketa hitzak indarra galdu duela, kudeaketa hitzaren mesedetan. Era berean, agerikoa da era berean egurraren merkatua ez dagoela bere garairik onenean, Añarbeko basotik ez baitator dirurik aspalditik. Gainera, Herri Onurako mendia izanik, Udal Administrazioak dagoeneko ez dio arlo horri lehentasunik ematen. Beraz, egurraren ustiaketa lehentasuna ez bada, Administrazioak beste atal batzuei bide eman beharko lieke, lehen aipatutako horiei hain zuzen ere; ez baitugu ahaztu behar Natura 2000 Sarean dagoela Añarbe.

